



202/2015 Ebazpena, ekainaren 30ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideen zuzendariarena. Horren arabera, argitaratu egin behar dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko webean 1 lehentasuneko aldi baterako kontratazioko behin-behineko zerrendak, lanpostu hutsenak zein erresebatuta daudenenak, honako kategoria hauetarako: Zelaria eta Zerbitzuetako langilea.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluak aldi baterako kontratazioko zerrendak sortzeko eta kudeatzeko modua arautu zuen 2011ko maiatzaren 9ko Erabakian (EHAA, 106 zk., 2011ko ekainaren 6koa).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak 2011ko uztailaren 15ean emandako Ebazpenaren bidez, 1282/2011 zenbakiduna (EHAA, 142 zk., 2011ko uztailaren 27koa), onartu egin ziren 2011ko Enplegu Publikoaren Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak; horietan ezarritakoaren arabera eskuratzekoa zen lotura estatutario finkoa Osakidetzan.

Pasa den urteko abenduaren 22ko 361/2014 Ebazpenaren bitartez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideetako zuzendariak emandakoa, ireki egin zen 2014ko aldi baterako kontratazioko zerrendetan izena emateko epea (2015eko urtarrilaren 8tik 30era), 2011ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan deitutako kategorietarako eta ireki behar izan diren beste 5 kategorietarako.

Lanpostu hutsak eta erresebatuak betetzeko eta kudeatzeko premia hain handia da, ezen Osakidetza egokitzen jo duen modalitate honetako zerrenda argitaratzea ondoko kategoria hauetan: Zelaria eta Zerbitzuetako langilea.

Behin zerrendok ordenatuta, kontuan hartuta horiek sortzeko irizpideak -laugarren atalean zehaztutakoak-,

## EBATZI DUT

**Lehenengoa.-** Argitaratu egin behar direla Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko webean 1 lehentasuneko aldi baterako kontratazioko behin-behineko zerrendak, lanpostu hutsenak zein erresebatuta daudenenak, honako kategoria hauetarako: Zelaria eta Zerbitzuetako langilea.

**Bigarrena.-** Ebazpen honen aurka erreklamazioa jarri dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza baliabideetako zuzendariari 10 egun balioduneko epean, ebazpena Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 30ean

Izpta.: José María Armentia Macazaga

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA